

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia udaletan

**Euskara
Biziberritzeko
Plan
Nagusia**

Maiatzeko Berripaperean adierazi bezala, Eusko Legebiltzarrak emandako aginduari jarraituz, abian jarri da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia udaletan garatzeko prozesua. Uda aurretik hogeit bat udalekin egingo dira bilerak plan estrategikoa prestatzeko. Aurreko alean adierazitakoez gain, maiatza eta ekaina bitartean, Irun, Bilbao, Bermeo eta Tolosaldeko plan estrategikoa garatzeko bilerak izango dira. Horiekin batera, bi mankomunitate ere hasiko dira planak prestatzen: Txorierriko Mankomunitatea eta Arratiakoa.

Udaletan eta mankomunitateetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren kudeaketa eta jarraipena egiten laguntzeko, Hizkuntza Politikarako aplikazio informatikoa jarriko du udalen esku. Aplikazioa erakunde publikoak lotuko duen HizPoNet izeneko sarean izango da.

HizPoNet sarea

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapena, kudeaketa eta jarraipena egiteko ardura duten erakundeen arteko komunikaziorako eta koordinaziorako tresna izatea da HizPoNet izeneko sarearen helburu nagusia.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimenez, Estranet horrek euskararen azpiegitura publikoak lotuko ditu. Beraz, HizPoNet sareak hizkuntzaren normalizazioan lanean ari diren erakundeen arteko komunikazioa errazteko eta erakundeetako euskara azpiegiturak hurbiltzeko tresna izan nahi du. Estranet

horretan, hasiera batean, bi aplikazio izango dira erabilgarri: batetik eta aurretik esan bezala, udaletan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren jarraipena egiteko aplikazioa, eta, bestetik, administrazioaren Euskara Planen jarraipena egiteko aplikazioa.

Aipatutako sarearen bidez, lehenengo fasean Eusko Jaurlaritza eta hainbat udal (5.000 biztanletik gorako udalak eta euskaldun-kopurua %70etik gorakoa dutenak) lotuko dira. Horretarako, EJI Eren bitartez, Euskaltel enpresak Euskal Autonomia Erkidegoaren udaletan sarea osatze-

ko beharrezkoak diren baliabideen gaineko azterketa egingo du, udal bakoitzak behar dituen konexio-puntua eta tresna informatikoak identifikatzeko. Baliabideen azterketa egin ondoren sarea sortzeko eman behar diren urratsak zehaztuko dira eta pixkanaka sare telematikoa eratuko da.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren jarraipena egiteko aplikazioa uztailean izango da erabilgarri.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Castellano

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

kodea:Lurraldea:.....

Tel.:

e-posta:



Euskal Herriko III. Inkesta Soziolinguistikoa

Ipparraldearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko elkarlanaren ondorio

III. Inkesta Soziolinguistikoa egiteko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hitzarmena sinatu zuen 2001eko azaroan Ipparraldeko Hizkuntza Kontseiluarekin. Halaber, Miarritze-Angelu-Baiona hiri-elkargoa (CABAB) ere Sailburuordetzarekin aritu da elkarlanean. Hizkuntza Kontseilua eratu aurretik, hainbat elkarterekin eta Euskal Kultur Erakundearekin jardun du lanean Sailburuordetzak, besteak beste, Euskal Herriko 1991ko eta 1996ko Inkesta Soziolinguistikoko garatzeko.

Nafarroako Gobernuarekin ez da hitzarmenik sinatu. Aurreko bi inkestetako bideari jarraiki, horretarako proposamena egin zitzaizen, baina ez zen erantzunik jaso; beraz, Euskararen Aholku Batzordearen eskutik egin da inkestaren landa-lana Nafarroan.

Euskal Herri osoan egiten den eragiketa bakarrentariko

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa da, oraingoz, euskararen ezagutza, erabilera eta hizkuntzarekiko jarrerak neurtzeko, euskararen eremu osoan egiten den eragiketa soziolinguistikoa bakarra. Horretan datza, besteak beste, bere garrantzia.


Bost urtez behin egiten den inkesta honek, guztira, 6.824 inkesta eginda (1.720

Ipparraldean, 1.504 Nafarroan eta 3.600 EAEn), euskararen egoeraren erretratu orokorra ematen digu: aldagai soziodemografikoak, hiltunen hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren erabilera hainbat eremutan (familian, lan-munduan, bizitza publikoan...) eta hizkuntzari buruz diren jarrerak. Oinarri-oinarrizko informazioa ematen digu, beraz, hizkuntza-adierazle sistematikoko ezinbesteko diren datuak hain zuzen.

Hauxe da, bestalde, Ipparralde osoan hizkuntza-bilakaeraren berri ematen digun datu-iturri bakarra. Nolanahi, azken aldian, mugatuagoak izanik ere, egin dira bertan hainbat ikerlan intergarri.

1991tik 2001erako ikuspegi osatua

Horiek horrela, euskarak bere eremu osoan azken hamar urteotan izan duen bilakaeraren berri izango dugu aurten. Lehenengo emaitzak azaroaren amaierarako izango dira. Horretarako, ekainaren 17tik 21era bitartean, Richard Bourhis, Québec-eko Unibertsitateko aditua lagun, hiru alderdi aztertu dira landa-lana amaitua den une honetan: batetik, eskueran diren oinarriko emaitzak balioetsi; bestetik, 1991tik 2001era gertatutako aldaketa nagusiak identifikatu eta hirugarrenik, aurreikusita dauden esplotazioez gain, gai edo datu jakin batzuk aztertzeko beharko lirakeenak zehaztu.



Euskal Herriko III. Inkesta Soziolinguistikoa



PERTSONAJEA: Tere Irastorza

LABURRAK:

Jexux Artze txalapartariaren heriotza

Elefante txori-bihotza, Municheko zerrendan

AGENDA UEUren 30. ikastaldia



Oporraldian ere euskaraz

Dirulaguntzak



EBPN udaletan

laburrak

Jexux Artze txalapartariaren heriotza

Maiatzaren 4an hil zen Jexux Artze txalapartaria. 1945ean Usurbilen jaioa, 60ko hamarkadatik gaur arte txalapartaren bultzatzaile nagusietako bat izan zen, JosAnton Artze anaiarekin batera. 1965etik 1972ra bitartean *Ez dok amairu* kultur mugimenduaren eragile eta partaide izan zen eta *Baga-Biga-Higa* ikusgarrian parte hartu zuen. 1974an, *Ez dok amairu* desegin eta gero, *Ikimilikiliklik* ikusgarrian parte hartu zuen, JosAnton Artzerekin batera. 1986an, Andoni Alemanekin elkarlanean, txalapartaren soinuz osatutako iraupen luzeko lehen diskoa grabatu zuen, eta 'Sakanatik Arbaila Ttipira' 1999an. "Txalapartaren aro berriaren sortzaile nagusietako bat", Juan Mari Beltranen ustez, "oso gozoa zen".



Elefante txori-bihotza, Municheko zerrendan

Mariasun Landaren *Elefante txori-bihotza* izeneko liburua euskararen mugak gainditu ditu. Izan ere, Municheko Nazioarteko Gazte Liburuetegiak urtero eratu ohi duen Zozo Zuria liburu gomendagarrien zerrendan ezarri du Mariasun Landaren testua eta Emilio Uberuagaren ilustrazioak dituen liburua. Euskarazko ipuinaren gaztelaniazko, galegozko eta katalanezko bertsiok egin dira eta Irakurzaletasuna Sustatzeko Egitaraua antolatatu du Eusko Jaurlaritzak Mariasun Landaren ipuin berria ardatz harturik.



agenda

UEUren 30. ikastaldia

Udako Euskal Unibertsitateak 30 urte beteko ditu aurten. Azken edizioetan ohienez, Miarritzen eta Iruñean izango dira ikastaro, hitzaldi eta jardunaldiak. Uztailaren 1etik 5era bitarte burutuko dira Miarritzeko saioak eta hil bereko 15etik 26ra, berriz, Iruñekoak. Udako unibertsitateak eskainiko dituen ikastaldien berri zehatza jakin nahi eta izena eman nahi izanez gero, jo UEUren web-gunera, www.ueu.org helbidera.



pertsonajea

Tere Irastorza

Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria



ZALDI ERO

Tere Irastorza (Zaldibia, 1961), Euskal Idazleen Elkarteko (EIE) lehendakari da joan den martxoaren 16az gero. Bergarako UNEDeko Euskara Departamentuko irakasle izan zen urte askotan eta Beasaingo Ikastolako zuzendaria da egun. Eta, beti, idazle.

Aldizkari eta egunkarietan kolaboratzen hasi zen lehenengo eta hainbat lan ditu agerkari batean eta bestean barreiatuak: *Susa*, *Kandela*, *Goierriarra*, *Karmel*, *Egan*, *Zurgai*, *Jakin*, *Hegats*, *Maiatz*, *Argia* eta bestetan. 1980an kaleratu zuen lehen liburua, *Gabeziak*, hurrengo urtean Kritikaren saria eman ziona. *Hostoak*. *Gaia eta gau-aldaketak* ondu zuen gero, 1983an argitaratu zuena, Resurrecion Maria Azkue saria irabazitako poema liburua. Harrezkero idatzi dituen liburuen artean dira *Derrotaren fabulak*; *Osinberdeko kantoriak*; *Manual devotio gabecoa edo ibilgailuetara erabiltzeco escu-liburua*; *Gabeziaren kanthoreak: poema bilduma*; *Izen gabe, direnak*. *Haurdunaldi beteko khantoriak*; *Antologia*, eta beste.

EIEko lehendakari izan aurretik urtebete egin du lehendakariorde lanetan eta, ondorioz, aspaldi ezagutzen du hurrengo hiru urteetan zuzenduko duen elkartearen lana. Horretan, EIEren 2000-2004ko Plan Estrategikoak biltzen dituen puntuek gidatuko dute Tere Irastorzaren lana. Besteak beste, idazleen eta gizartearen arteko harremana indartzea da helburu nagusietarik bat, hau da, idazleen proiektio soziala bideratzea eta, horrekin batera, euskal liburuarena.

Jakina da, bestalde, iaz euskara zientifikoaren inguruko kongresua antolatu zuela EIEk, eta kazetaritza eta literaturaren arteko harremani buruzkoa antolatu duela aurten, oratoriari buruzkoarekin batera.

EIEk antolatu ohi dituen ekimenen artean *Idazleak ikastetxeetan* da sendotuena eta arrakastatsuena, eta muga administratiboen gainetik Nafarroan eta Iparraldean ere idazleak egonaldiak egiten dituzte. Eusko Jaurlaritzak, berriz, berariaz lagundu du EIEren *Idazleak solasean* asmoa gauza zedin, helduen artean ere irakurleria finkatzeko asmoz.

Ohienez, *Hegats* aldizkaria kaleratzen jarraituko du EIEk, *Barnegats* aldizkariarekin batera. Hemendik aitzina, berriz, *Kalegats* kaleratuko dutela agindu du Tere Irastorzak, ikastetxe eta liburutegietan banatuko den aldizkaria, idazleen solasaldiak, poesia emanaldiak, literatur tailerrak eta antzekoak antolatzeko gida izango baita.

Oporraldian ere euskaraz

Euskara ikasteko baliatzen du askok uda giroa

Udako ikastaroen eskaintza ez da berria gurean. Hogeitaka urte dira lehen ikastaroak antolatu zirenetik eta harrezkero gero eta gehiago dira uda euskaraz ikasteko eta hobetzeko baliatzen duten ikasleak. Eskaintza handia da, eta hainbat herritan egin ohi dira ikastaro trinkoak. Barnetegiaren helburua da, berriz, euskara ikasteko bide eraginkorrena, azkarrena eta erosoena eskaintzea. Maiz, gainera, herrian herriko giroa ere lagungarri izan ohi da euskara gau eta egun erabiltzeko eta herrikoekin harremanetan sartzeko.

Aurten ere mota askotako ikastaroak izango ditu aukeran euskara-ikasleak, uztailan hasi eta iraila bitarte. Familia osoarentzako ikastaroak izango dira batzuk, euskalkiak lantzekoak beste batzuk, noiz trinkoak, noiz prestakuntza-saioak... Ondoko mapan seinalaturik ageri dira barnetegiak izango dituzten herrietako batzuk.

Zenbait lagunek nahiago izango du udaldia familia euskaldunen batekin eman, HABEren ekimenez eraturiko "Egonaldiak familia euskaldunetan" kanpainaren bidez.

Informazio gehiago lortu nahi izanez gero, HABEren web-gunean: www.habe.org



Dirulaguntzak

EUSKALGINTZA DEIALDIA: EUSKARA NORMALIZATZEKO DIRULAGUNTZAK

Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak emango dizkie aurten ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak helburu horietara iristeko egitasmoak gauzatzen dituzten pertsona juridiko pribatuei.

Guztira, 805.356,00 euro izango dira dirulaguntzetarako, zenbait ataletan banaturik. Besteak beste, euskararen ondarea (kantua, bertsoak, euskalkiak, etab.) jaso, gorde eta gizarteratzeko egitasmoak lagunduko dira; era berean, euskaraz egindako materialak sustatzeko eta bideragarriago egiteko ekimenak edo ekintza programak, batik bat, haur eta gazteentzat prestaturikoak (aldizkarien harpidetak ugaritzea, euskarazko bideoak, bideojokoak, jostailuak, joko hezigarriak eta antzekoak, softwareak, etab.). Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauak ere lagunduko dira eta, azkenik, baita bestelako jarduerak ere: euskararen erabilera aisia, haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna sendotzeko antolatutako egitasmoak, monitoreen prestakuntza,

material sorkuntza, euskararen historian edo hizkuntzari loturiko hainbat eremutan izen handia duten pertsoniak omentzeko edo bestelako ospakizunak antolatzeko jarduerak, etab.

Agindua ekainaren lauan argitaratu zen EHAAn. Egun horretatik aurrera ikusgai dugu Eusko Jaurlaritzaren web-guneotan: www.ej-gv.net/ (Laguntzak eta deialdiak epean/Euskara) eta www.euskadi.net/euskara (Hizkuntza Politika / Dirulaguntza deialdiak/Euskalgintza).

Argibide gehiago nahi izanez gero, jo Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara, 945 01 80 73 telefono zenbakira.

EUSKARA GARATZEKO DIRULAGUNTZAK TOKI-ENTITATEENTZAT

Kultura Sailak toki-entitateei zuzentzen zaien 2002ko dirulaguntza-deialdia egin du. Horren xedea da Euskadiko Autonomia Erkidegoko toki-entitateei eta hauen menpeko edo hauei lotutako enteei hizkuntza-normalkuntza zerbitzuak eratzeko edo sendotzeko eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia entitatearen edo entearen

esparruan garatzeko dirulaguntzak ematea.

Hizkuntza-normalkuntza zerbitzuaren egiteko nagusia entitatearen jarduketara eta arlo desberdinetan euskararen erabilera sustatzea izango da, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko.

Horretarako dirulaguntzetan gehienez ere 601.012,10 euro erabiliko da.

Agindua ekainaren hamarren argitaratu zen EHAAn. Egun horretatik aurrera ikusgai dugu Eusko Jaurlaritzaren web-guneotan: www.ej-gv.net/ (Laguntzak eta deialdiak epean/Euskara) eta www.euskadi.net/euskara (Hizkuntza Politika / Dirulaguntza deialdiak/ Toki Erakundeetarako dirulaguntzak).

Argibide gehiago nahi izanez gero, jo Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara, 945-018115 telefonora.